

«ADISKIDETASUNA ERAKUTSI»



« Arratsalde batean karateko maisuak gimnasioko giltzak eman zizkidan nik irekitzeko eta, egun hartan berak ezin zuenez, nire kideen ardura eman zidan zidan.

Beste batzuekin saioa ondo prestatu genuen eta tatamiaren aurrean gure ohiko agurra egitera gindoazenean gazte talde bat gimnasia zetorrela ikusi nuen. Susmo txarra izan nuen.

Ez nuen huts egin. Batere gomendagarriak ez ziren gazte haiek. Bere botekin koltxoneta gainean saltoka hasi ziren eta gure kopak lapurtu nahi zituzten. Hasieran borrokan hastea pentsatu nuen, baina berehala Jesusen hitz horiek gogoratu nituen: **Maitatu etsaiak! Izan ere, maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue?».**

Orduan gimnasioko nire lagunak lasaitu nituen eta gazte haiekin hitz egitera joan nintzen. Ez zuela merezi gure kopak lapurtzea eta kopak irabazteko pertsona batek egindako eginahalak eta nekeak errespetatu behar zutela esan nien.



A. C. – ITALIA

Buruan sartu nien hobe zela lasaitzea, eta botak kenduta tatami gainean jarri eta gurekin batera karateko saioa egin zuten.

Baina onena, lagunak egin ginela! Batzuei hainbeste gustatu zitzairen, izena eman zutela gure klubean eta gaur egun nirekin batera entrenatzen dutela.

«BAINA ON EGITEAGATIK SUFRITU BEHAR BADUZUE, HORI GAUZA EDERRA DA JAINKOAREN AURREAN»

Sufrimendua pazientziaz eraman?
Nola da posible?

Hemen Pedro apostolua federa etorri diren esklaboek zuzentzen zaie, eta horiek, gizarte hartako esklabo guztiek bezala, begirune-falta eta tratatu txar benetan bidegabekoak nozitzen zituzten.

Hori aspaldiko gauzak dira, baina nola egin hori gaur egun?

Hedaduraz esan dezakegu hitz horiek, edozein garai eta tokiko pertsoneri zuzenduak daudela, lagun-hurko nagusi nahiz maila berekoengandik, begirune-faltak eta injustiziak jasan behar dituztenean.

Nola egin behar dugu ez amorratzeko horrelako egoeretan?

Jesusen portaera berbera izaten saiatu.


Pedrok maitasunez erantzuteko aholkatzen die eta zailtasun eta begirune-falta horietan grazia bat ikusteko, hau da, benetako kristau espiritua adieraz dezaten Jainkoak permititu duen okasio bat.

Pertsona batzuek, hitz horiek nahiz antzeko beste batzuk direla eta, gehiegizko menpekotasunaren alde jokatzear salatuta nahi dituzte kristauak.

Baina ez da horrela. **Jesusek, gaizki tratatzen eta aintzakotzat hartzen ez gaituztenak maitatzeko eskatzen badigu,** ez da bidegabekeriaren kontra bihozgabe bihurtu nahi gaituelako, gizarte benetan zuzena nola egin irakatsi nahi digulako baizik.

MemoryCard

JESUSEK MUNDURA EKARRI ETA DENENTZAT IZAN ZUEN MAITASUNAREN TESTIGANTZA EMAN BEHAR DIEGU DENEI, BAITA TRATU TXARRA EMATEN DIGUTENEI ERE..



In Action...

NOLA EGIN DEZAKEGU BENETAN BIDEZKOA DEN GIZARTE BAT?



MAITATZEN LEHENAK IZANEZ

Margotu maitatzen lehengoa izan naizen bakoitzean.

MOZTU ZATI HAU - TOLESTUZ TXARTEL-BALIAGARRI BAT BIURTUKO ZAIZU

MOZTU ZATI HAU, TOLESTUZ TXARTEL-BALIAGARRI BAT BIURTUKO ZAIZU